



Apirilaren 14 eta 21ean Barakaldoko izen zaharrei buruzko jardunaldiak egongo dira San Bizenteko kultur etxean. Onomastika eta Sasiburu elkarteak udalarekin batera dira ekimen honen antolatzaileak. Jardunaldiek helburu bikoitza dute: "Batetik Barakaldoko ondare onomastikoa orain arte erabili ez den zorroztasun zientifikoaz eta exhaustibitateaz jasotzea eta aztertzea eta bestetik ondare hori zabaltzea, herriari behar bezala itzultzea alegia". Jardunaldiak goizeko 10:00etan hasiko dira bi goizetan zehar luzatuko dira.

Oharra:

ONOMASTIKA elkartekoek SASIBURU elkartearen laguntzaz. BARAKALDOKO IZEN ZAHARRAK izeneko jardunaldiak antolatu ditu.

"Jardunaldi hauek helburu bikoitza dute: Batetik Barakaldoko ondare onomastikoa orain arte erabili ez den zorroztasun zientifikoaz eta exhaustibitateaz jasotzea eta aztertzea eta bestetik ondare hori zabaltzea, herriari behar bezala itzultzea alegia. Bidenabar, onomastikak eta onomastika jasotzeko esku artean erabili behar dugun dokumentazio oparoak ematen duten informazioa baliatuz euskararen historia sozialaren atal bat hobeto ezagutzen lagundu digu.

Onomastikak, jakina, toponimia, antroponimia eta gainerako onimia guztiak biltzen ditu. Orain aurkeztzen dugun proiektu hau Onomastika Elkartean bildu garen ikerlari batzuen ekimena da sortzez baina gai honetan interesa duten guztiei zabaldu nahi dieguna eta beraiekin partekatu nahi

duguna, inolako protagonismo eta esklutibotasunik gabe."

Anima zaitetz eta parte hartu jardunaldi hauetan!!

Egitaraua

2018.04.14

- 10.00 JARDUNALDIEN AURKEZPENA
- 10.30 BARAKALDOKO MEATEGIEN IZENAK (CARLOS GLARIA)
- 10.50 ¿POR QUÉ NO ENCONTRABAN EL NOMBRE EUSKÉRICO DEL REGATO? (ANDER ROS)
- 11.10 BARAKALDOKO SORTETXE-DEITURAK (INIGO REMENTERIA)
- ATSEDENALDIA
- 12.00 CALLES: ADDENDA ET CORRIGENDA (JAIME CORTÁZAR)
- 12.20 XVI. MENDEKO ONOMASTIKA BARAKALDARRA (BITTOR PASCUAL)
- 12.40 FUENTES PARA LA ONOMÁSTICA DE BARAKALDO (JOSÉ ALFONSO ANTEQUERA)
- 13.00 SOLASALDIA / COLOQUIO

1. JORNADAS DE ONOMASTICA

1. ONOMASTIKA JARDUNALDIAK

Programa

2018.04.21

- 10.00 EL ELEMENTO ENCARTADO EN LA ONOMÁSTICA BARAKALDESA (XABIER GONZÁLEZ)
- 10.20 TOPONIMIA ETA LEXIKOA (TXERU GARCÍA IZAGIRRE)
- 10.40 ZERGATIK EZ "MARAKALDO"? (ANDER ROS)
- 11.00 HISTORIA APODADA DE BARAKALDO (ELENA FERNANDEZ)
- 11.20 BARAKALDOKO KIROL ONOMASTIKA (NAGORE ARANAGA)
- ATSEDENALDIA
- 12.10 SOLASALDIA / COLOQUIO
- 13.00 TAILERRA: ZER EGIN DAITEKE IZEN BATEKIN? FORMETXETAREKIN, KASURAKO
- 13.40 JARDUNALDIEN ITXIERA
- 14.30 BAZKARIA